

LAUDIOKO HARAN NOBLEAREN UDALERRIAN UDALAREN JABETZAPEKO BIDEEN ERABILERA BEREZIA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

SARRERA

Arabako Batzar Nagusiek onartu egin zuten 6/1995 Foru Araua, otsailaren 13koa, Arabako Lurralde Historikoko Landa-bideen erabilera (1995-02-27ko 24 zk.), artapen eta zaintzarako, Udal honen guraria da, Foru Arauko 9. artikuluekin bat, eta dena dela Foru Arauari atxikirik, udalak bereak dituen eskumenen barruan, Laudioko Haran Noblearen udalerrian udalaren jabetzapeko bideen erabilera berezia arautzea.

Asmo horrekin prestatu da honako Ordenantza hau, azaldu denez, udalaren jabetzapeko edo administraziopeko bideen erabilera arrunta, berezia eta normala arautu nahi duena, eurotan ibiltzen diren pisu handiko ibilgailuen eraginez geratzen den egoera txarra ekiditzearen, batez ere baoak dauden lekuetan egurra eta apeak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuen eraginez.

1. Artikulua: *Helburua.*

Udal honek, Toki Jaurpiderako Oinarrien 7/85 Legeko 25. artikuluan aurrikusitakoarekin, Udalen Ondasunen Araudiarekin eta honekin zerikusia duten gainontzeko legezko arau guztiekin bat, udal jabetzapeko edo administraziopeko bideen erabilera arrunta, berezia eta normala araupetzen ditu, eurotan ibiltzen diren pisu handiko ibilgailuen eraginez geratzen den egoera txarra ekiditzearen, batez ere baoak dauden lekuetan egurra eta apeak garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuen eraginez.

2. Artikulua: *Bideak.*

Ordenantza honen ondorioetarako landa-bide bezala hartzen dira hiriguneak elkartzen dituen udal jabetzapeko edo administraziopeko komunikabideak eta bereziki finketako edo nekazaritza ustiatzearen zerbitzurako zuzendutako landa-finketako, ibai, baso, mendi, herrilur edo bazkalekuetako errepideak.

Ordenantza honen ondorioetarako landa-bide bezala hartzen dira nahiz helburu honekin bereziki eraikiak nahiz beste edozein bide nekazaritzarako bereziki eraikia ezan ez arren hleburu horrekin nagusiki erabiltzen direnak.

3. Artikulua: *Ezargunea.*

Arau honek Laudioko udalerrira osoan izango du indarra.

4. Artikulua: *Baimena.*

Udal jabetzapeko bideetan zehar ibili behar duten garraiolari eta kontratistek dagokien udal baimena eskatu beharko dute, hurrengo hauek zehaztuz:

- a) Jabearen edo kontratistaren nortasuna agertzen duten datuak.

- b) Garraiaketarako erabiltzen diren ibilgailuen dautak, matrikula, egin den ostera-kopurua, osterako garraiatuko den zama zehaztuz eta egin den ibilbidea tokiko planoan adieraziz.
- c) Garraiatuko den zamaren bolumena estereo edo tonatan.
- d) Garraiaketak hasiko eta amaituko diren egunak.
- e) Materialea nonbait bilduko bada, non izango den grafikoz azaldu.
- f) Materialearen jatorria dagoen mendiaren izena eta kokagunea, hala balitz, erreferentzia katastrala ere zehaztuz.
- g) Egingo den talaketarako baimena, basoen arloaz arduratzen den agintariak emana, kasu honetan Arabako Foru Aldundiak.

5. Artikulua: *Debekuak.*

Ezin da erabili:

- Har-ibilgailurik.
- Katez elkar lotutako ibilgailurik.
- Zoru gainean irristatzeko ibilgailurik.
- Errodadura-bandadun ibilgailurik.
- Gehienezko orotarako pisua 26 tonakoa baino handiagoko ibilgailurik eta hiru ardatz baino gehiago duen kamioirik.

6. Artikulua: *Erabakirako epea.*

Baimena eskuratzeko prozedurarako eperik luzeena aurretik 4. artikuluan zehaztutako betekizunekin egindako eskabidea egin eta 30 eguneko izango da, epe honen ondoren, inolako ebazpenik zehazten ez bada, baimena emandakotzat hartuko delarik, 5. artikuluan azaldutako ibilgailuen kasuan izan ezik.

Ezin izango da erabili ustezko baimena, 10. artikuluan azaldutakoaren arabera, fiantza ordainduta eduki arte.

7. Artikulua: *Prezio publikoak.*

- 1.- Udal baimena emandakotzat jotzeko, edozein kasutan, hala balitz, ezarriko liratekeen Prezio Publikoak ordaindu beharko dira aurretik, bien bitartean ezin izango delarik bideetatik ibili ez euron aprobetxamenduari ekin.
- 2.- Prezio publikoak ez badira ordaintzen, baimena kendu egingo da.
- 3.- Aprobetxamenduagatiko zenbatekoaren prezio publikoa kalkulatu da ibilitako bidearen luzeraren arabera, honako eskalaren arabera:

BIDEAREN LUZERA

km. baterain.....
 km. batetik 2 km.rain
 2 km. baino gehiag.....

PREZIO PUBLIKOA

22 pta./esteroa edo 34 pta./Tona
 32 pta./esteroa edo 49 pta./Tona
 37 pta./esteroa edo 57 pta./Tona

- 4.- Dena dela, prezio publikoa izango da unean unean dagokion 9. Udal

Ordenantza Fiskalak arautzen duena udal jabari publikoko ondasunen erabilpen pribatu edo aprobetxamendu bereziagatik.

8. Artikulua: *Luzapena.*

Baimenean zehaztutako egunerako aprobetxamendua oraindik amaitu ez bada, luzapena eskatu beharko da.

9. Artikulua: *Agiriak erakustea eta zaintza.*

Garraiolariak, garraiaketari ekiten dion edozein unetan, baimena eman duen udal erabakiaren originala eta kopia eta prezio publikoa eta fiantzaren gordailua ordaindu direla erakusten duten ordainketen egiaztagirak erakutsi beharko ditu. Aipatutako udaltzain edo udal agintariei erakutsi beharko zaizkie, hauek hala agintzen duten guztian.

10. Artikulua: *Fiantza.*

Baimena eskatzen duenak, bideak erabiltzen hasi aurretik, fiantza bat ordaindu beharko du, bideak erabiltzeagatik eragin litzakeen kalteengatik.

Fiantza hau dirutan eod eragin litezkeen kalteengatik erantzungo lukeen baketxeko bermez egin ahal izango da.

Fiantzaren zenbatekoa hurrengo eskala honen arabera zehaztuko da:

BIDEAREN LUZERA	FIANTZA		
km. bateraino.....	225	pta./estereo	edo 340
pta./Tona			
km. batetik 2 km.raino	325	pta./estereo	edo 490
pta./Tona			
2 km. baino gehiago	375	pta./estereo	edo 570
pta./Tona			

Gutxienezko fiantza, edozein kasutan, 100.000.- pta.koa izango da.

Mendi baterako ordaindutako fiantza ezin izango da beste baterako erabili, nahiz eta egurra mendi berberetik atera.

Fiantza itzultzeko prozeduraren erantzuna berau eskatu eta 3 hilabetekoa izango da. Epe horren ondoren erantzunik izan ez bada, ez onartzearen ondorioak izango dira.

11. Artikulua: *Bideen garbiketa.*

Aprobetxamenduaz baliatzen direnek, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dute bideak edozein erabilgarritasunerako prest izango direla, aprobetxamenduak irauten duen bitartean beharrezkoan izan litezkeen garbiketak eta konponketak eginez. Hala egiten ez bada, zeregin honetaz Udala bera arduratuko da, baina kostua haien kontura izango da.

Dena dela, aprobetxamenduaz baliatuko direnek,ahal duten guztia egin beharko dute bideotatiko zirkulazioarengan inolako kalterik ez eragiteko. Bide hauetan ezin izango da enborrik ez adarrik utzi. Gainera, ibilgailuek bideetan utzitako lurrak, harriak,

e.a. ere baztertu eta erretiratu egin beharko dituzte bidetik.

12. Artikulua: *Txosten teknikoak.*

Udal zerbitzu teknikoek ikuskaketak egingo dituzte eta bideen egoeraren berri emango dute, aprobetxamenduaren aurretik eta aprobetxamenduaren ostean duten erkatuz. Txostenotan, argazkiak, agiri planimetrikoak, ikusentzutezkoak, e.a. erabil daitezke lagungarri.

13. Artikulua: *Konponketa lanak.*

Txosten teknikoa ikusita, baimena eman zaionari, bideetan egin beharreko konponketen berri, hala balitz, emango zaio, lanoi ekiteko epea ere jakinaraziz. Epe hori bukatu ondoren konponketok egin izango ez balira, Udalak berak ekingo dio zeregin honi haren kontura, kostua aldeztu aurretik ezarritako fiantzatik kenduko delarik. Fiantzako dirutza nahikoa izango ez balitz, falta den zenbateko guztia eskatuko da harik eta kalte guztiak ordaindu arte.

Egindako kalteak konpontezinak balira, honatutakoondasunen edo egindako kalteen balioa ordainduko zaio Udalarari.

Udal-bide berberen aprobetxamenduaz aldi berean bat baino behiago aprobetxatuz gero, kalterik balitz, erantzukizuna erabiltzaileen artean erdi bana banatuko da,.

14. Artikulua: *Bitartekaritza, itunebidea eta arbitraia.*

Kalteen edo konponketen balorazioa dela-eta Udalaren eta erabiltzailearen artean ez adostasunik balego, bi alderdiok, horretarako ados jarrita, bitartekaritza, itunebidea eta arbitraiazko auzitan sartu ahal izango dira, dena dela honerako hitzarmena, itunea, adostasuna edo kontratua sinatu beharko dutelarik. Auziokatik sor litezkeen gastuak erabiltzailearen kontura izango dira.

15. Artikulua: *Baja aitortzea.*

Aprobetxamendua amaitzen denean, interesatuak behartuta daude bajaren aitormena egitera. Berau, Udal Administrazioan bertan egingo da eta aurkezten den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

16. Artikulua: *Jabearen erantzukizuna.*

Garraiatzen diren materialeen jabeak izango dira Arau honetan zehazten direnak betearazten arduratuko direnak.

17. Artikulua: *Harrobiak, meatz-jarduerak eta lurrak lekuz aldatzea.*

Bideak harrobietako materialeak garraiatzeko eod lurrak lekuz aldatzekoe rabilzten badira, jarduera honetan arduratzen diren entpresak izango dira bideen mantenimenduaz ibilbide guztian arduratuko direnak.

Aldiz-aldika bideak ikuskatu egingo dituzte udal zerbitzu teknikoek, eta ikusitako

kalte guztiak aipatutako entrepesa horiek ordaindu beharko ditiuzte.

18. Artikulua: Baserritarrek materialeak garraiatzea.

Baserrietako jabe edo biztanleek baserriaren ustiapenerako beharrezkoak dituzten materialeen garraioak tona aldetiko muga berberak izango ditu. Fiantza aurkezteaz salbuetsita geratuko dira baina Udalari jakinarazi beharko diote aldez aurretik garraio hori egingo dutela.

Honako bi kasu hauek salbuesten dira:

- a) Basoen aprobetxamenduak direnean.
- b) Udalaren iritziz egin beharreko bidaien zenbatekoak eta garraiatu beharreko zamak hala aholkatzen duenean.

19. Artikulua: Ezarpenerako arauak.

Ordenantza honetan aurrikusita ez dagoen guztirako araua izango da Arabako Batzar Nagusiek onartu egin zuten 6/1995 Foru Araua, otsailaren 13koa, Arabako Lurralde Historikoko Landa-bideen erabilera (1995-02-27ko 24 zk.), artapen eta zaintzarakoa, eta berau garatuko duten xedapenak.

Halaber araua izango dira bere eskumenen barruan udalaren Ordenantza Fiskalak eta Udalak erabakitako Ordenantza honen maila berdineko zein beheragoko beste edozein xedapen.

Udalak Alkatetzaren bitartez erabakiko ditu ordenantza honetako artikulatua interpretatu, argitu edo garatzeko egoki irizten dizkion xedapenak.

20. Artikulua: Arau-hausteak eta isunak.

Arau-hauste eta isunetan otsailaren 13ko 8/1995 Foru Arauko II Kapituluako 24. artikulutik 30.era erabakita datorrena aplikatuko da, eta oro har Isunen Prozeduran Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoek Isunak jartzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20 2/1998 legean erabakitakoari jarraituko zaio.

XEDAPEN GEHIGARRI BAKARRA

Otsailaren 13ko 8/1995 Foru Arauko Bigarren Xedapen Gehigarriko 3. paragrafoan aurrikusitakoarekin bat, bertan azaltzen diren bideak Udalak inskribatu ahal izango ditu Arabako Foru Aldundiko Bideen Erregistroan.

AZKEN XEDAPENA

Toki Jaurpiderako Oinarriak arautzen ditun apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 70.2 artikuluan erabakitakoarekin bat, Ordenantza hau indarrean sartuko da bere testu osoa Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratutako egunaren biharamunean.